

BI MILA ETA HEMERETZIKO URTARRILAREN ZAZPIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2019ko urtarrilaren zazpian, 19:30etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M^a Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri
Aitziber Ibinarriaga Delgado
Edoitz Bilbao Aurre
Aintzane Enzunza Zorrozu
Gartzen Agirregoitia Abad
Haizea bengoetxea Andikoetxea

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaieci ekin jake.

I.- BI MILA ETA HAMAZORTZIKO ABENDUAREN HOGEIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2018ko abenduaren hogeian egindako aparteko Bilkuraren aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

Aritz Gondra Ziskarren lan kontratua (Lanbide 2018).
Juan Manuel Garai Otazuak aurkeztutako bermearen itzulketa eskaera.
Aritz Ibarzüengoitia Gerrikabeitiak aurkeztutako bermearen itzulketa eskaera.
Anabel Ibarbengoetxea Gorospek aurkeztutako bermearen itzulketa eskaera.
Iñaki Etxebarria Alegriak aurkeztutako obra lizentzia eskaera. (2 obra).
Fakturen onarpena
2018ko Aurrekontuaren 3. zenbakiko Aldaketa.

III- NORBERAK LEKARKEENA.

Hariako (Lanzarote) Alkatearen idazkia.

Alkate Jaunak, Hariako (Lanzarote) Alkateak bidalitako idazkiari buruz berba egin dau, bertan, jasotako oparitxoengatik eskerrak eman eta egokia iruditu ezkeru Arrietako herriarekin senidetza egiteko aukera eskaintzen du.

Gartzen Agirregoitiak Olea baserriko (Jainko) kale argiaren arazoa zelan dagoen galdetu du.

Gartzen Agirregoitia Abadek Jainko auzoko Olea baserriaren alboan, lursail partikularrean jarrita egon den kale argiaren egoerari buruz galdetu du.

Alkate jaunak, gatazkari konponbidea aurkitzeko asmoz, eragindako hiru auzokideei bilera baterako dei egin ziela azaldu du eta bakarrik, P.X. eta J.M^a. aurkeztu zirela esan du, hirugarren kaltetua -M.S- ez zela aurkeztu.

Abokatuak eta arkitektuak kale argia ezin dela lursail partikularrean jarri diotela azaldu du eta bere garaian, eragindako auzotarrak ez zuela baimenik sinatu, beraz, gaur egungo jabeak, bere lursailetik kale argia kentzeko eskatu dezakeela. Eragindako hiru auzokideei laster idatziz erantzungo diela azaldu du.

Bertan behera utzitako txakurren bilketa eta mantenuari dagozkion aurrekontuak.

Azkenik, Alkate jaunak “La Casa del Perro” eta “Txiki Eder” enpresek bertan behera utzitako txakurren bilketa eta mantenuari buruz aurkeztutako aurrekontuei buruzko azalpena emon dau.

Alkate Jaunak Sollubeko bandera barria jarriko duela adierazi du.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoanez, Alkate jaunak amaitutzat jo dau bilkura zortzi eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko.